

Zientzia eta teknologia

JOXE ROJAS

i-Zurrumuruaren amaiera

STEVE JOBSEN jarraitzaileek, edozein futbolzale bezala, beren nahi, espektatiba eta frustrazioak proiektatzen dituzte beren idoloengan. Hala, duela urte batzuk Tablet PCak modan jarri zirenean, mac-hooliganak berehala hasi ziren ustezko TabletMac bati buruzko zurrumuruak hedatzen. Zurrumurua inda-

ko; ez da telefono bat, horretarako handiegia izateaz gain, ez duelako deirik egiteko balio; liburu elektronikoko gisa ere ikusi beharko, pantaila arrunta baitu, eta ez paper elektronikokoa, nabigatzeko gailua dela dio Applek, baina horretarako teknologia gakoak –Flash, esate baterako– ezin ditu erabili. Kritika andana jaso du iPad-ak, maczalerik amorratuenetako askok ere PowerMac Cube, AppleTV edo MacBook Air ekarri dituzte gogora: teknologia aldetik punta-puntakoak izan arren, oihartzun eskasa lortu duen aurrekariak.

MATT BUCHANAN

Bi hilabete falta dira oraindik iPad famatua kalean ikusi ahal izateko, eta ordura arte ez dago jakiterik benetan zer harre-
ra izango duen. iPhone telefonoak ere antzeko kri-

rra galtzen joan zen, netbook oldearekin batera berriz ere suspertu arte. Arraroa egiten zitzaion askori netbookek suposatzen zuten ordenagailu kategoria berrian Applek alternatibarik ez aurkeztea.

Gorabehera horiek duela pare bat aste amaitu dira, Steve Jobs taula gainera igo eta iPad delakoa aurkeztutakoan. Maczale asko etsita daude (gaude!) Appleren gailu berriarekin, eta arrazoiak ez dira falta: ez da TabletMac bat, iPhone telefonoen sistema eragilea daramalako; ez da netbook bat, teklatua faltan eta prezioan dolar askotxo soberan dituela-

rikak jaso zituen hasieran, telefono huts gisa oso mugatua zelako, baina kontuak kontu, mundu osoko telefono egileen erreferente nagusi bihurtu zen egun batetik bestera.

iPadak ere denetik du apur bat, hutsune nabarmenak eta Appleren murrizketa politika zorrotza barne... baina Jobs eta bere lagunak maisuak dira murrizketa horiek estiloaren moztaroz saltzen, eta bere produktu berrien inguruko ezinegona produktua bera salgai egon baino dezente lehenagotik sortzen. Asmatuko dute oraingoan ere? Bi hilabete barru ikusiko dugu.

Armiarma-sarea, ura atmosferatik jasotzeko tresna

Beijing-eko (Txina) Laborategi Nazionalako ikerlariak, *Uloborus Walckenaerius* armiarma espeziak egiten duen sarearen egitura berezia –pilota txikiz jositako hariak– aztertuz, eremu idorretan atmosferatik ura biltzeko sistema proposatu dute *Nature* aldizkarian argitaratutako artikuluan.
<http://ttiki.com/10563> (Frantsesez)

Tabakoa errez sortutako kea inguruko objektuekin nahastearren arriskuak

Leku itxian tabakoa erretzeagatik sortutako kea leku horretako altzari, horma, arropa edo alfobretan dauden beste substantzia batzuekin konbina daiteke, substantzia kantzerigenoak sortuz. Kearen zeharkako eragina ere kontuan hartzekoa izango da, beraz.
<http://ttiki.com/10564> (Frantsesez)

Antimateria kopuru handitan ekoizteak Y-155 izarra akabatu zuen

Y-155 izarra osatu zenean, bere masa eguzkiarena baino 200 aldiz handiagoa zen, eta bere gunea hain bero zegoen, non une batean materia eta antimateria partikula-bikoteen produkzioa izugarri hazi zen. Horren ondorioz, oso urrundik ikusi ahal izan zen erreakzio termonuklearra izugarria gertatu zen.
<http://ttiki.com/10565> (Gaztelaniaz)

Joxerra Aizpurua

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16